



piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 79. alea 2003ko azaroaren 21a

**Zulotik
ateratzeko
laguntza**





Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Iragarlearen txokoa: Gaztelupe Taberna

Telef. 943752081

*“hemen ibiltzen dan jentia prixa
barik ibiltzen da”*

-Noiz eta nola hartu zenduen tabernia?
Oindala 2 urte hartu neban, tabernan kargu egitteko eskaintza bat jaso eta gero.

-Zein da Gaztelupeko berezitasuna?
Hemen danetik dago, musika mota ugari, kanpoko jentia, giro alternatibua, pintxuak...

-Zenbat pertsonak egiten dozue lan hemen?
Oin momentuan bost pertsona gabiz lanian.

-Taberna girua zela dabil azkenaldixan?
Jentia garaixen arabera mobitzen da, garai batzutan beste batzutan baino gehixao



mobitzen da jentia, baina orokorrian beheruntz doia gauzia, baina esan biharra dago hemen ibiltzen dan jentia prixa barik ibiltzen dala.

-Ze jende mota ibiltzen da?
Gehixen gaztiak ibiltzen dira baina nagusixak be etortzen dira. Danetik ibiltzen da.



Guztiondako eskola

BITTOR TREBIÑO

Izenburu horrekin Urriko azken egunetan gaurkotasan haundia duen gaiari buruzko ihardunaldiak ospatu ziren Donostian. Hiru egunetan, goiz eta arratsaldeko saioetan, eskolaren inguruan dauden marko teorikoak aztertuz, ezagutzen diren kasuak errealtatean hartzeko ahaleginak egin zituzten hitza hartu zutenek.

Eskola bateko irakasleak beraiek abian jarritako esperientzia azaldu zuen. Aipatzen den eskolan, auzo marginaletako ikasleekin batera, ikasle "arruntan" kopurua handia zen. Motibazio eza zuten ikasle kopurua ere dexente haunditzen zijoan, horrek zekarren disziplina kontuekin. Etorraren kopurua ere haunditzen zijoan. Guzti horren aurrean irakasle talde batek jolas orduetarako sandwichak prestatzeko gela ireki zuten zailtasunak zituzten ikasleek bertan lana egin zezaten. Grabazioan ikusten zenez bertan biltzen zen talde heterogeneo hark, harrotasunez azaltzen zituen beraiek egin produkzioak. Hain erantzun ona izan zuen, ze bazkariak prestatzeari ere ekin zioten.

Historia hori benetakoa bada, nola aurre egin klaustroetan irakasleek sarritan galdetzen dutenari: "horretan diharduen ikasle horri, kurrikuluma bete ahal izateko, zein nota jarri behar zaio matematikan"?

Gaurko eskolak bere betebeharrak zertan oinarritu behar dituen izan zen gaietako bat. Zein ezberdintasun dagoen integratzailea behar lukeen eskola eta

egokitzaila denaren artean. Batzuetan, sistema aldaketan oinarritzen den integratzailearen aldeko ahotsak entzun ziren, egokitzailaren erosotasunaren aurrean inklusibitatea bultzatu behar dela zioten.

Hiritartasunaren aldeko aldarrikapenak eginez, zeregin horretan, eskolak duen erantzunkizuna, pertsona bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak komunitatean ahalbideratu ditzan. Euskarri sendoak eskeini behar dira.

Burmuinetako paralisia duen Mikel, autista den Ander, Garazi Down Sindromeaz bizi dena, psikosia edo borderline diagnosis duten Eñaut eta Onintza, Nelia Errumaniatik etorri eta hizkuntza ezagutzen ez duena, ikasle finak diren Ane eta Asier edo, Tomás ijitoen kulturalan hezitakoa, bakoitza bere ezaugarriekin egoera batzuk besterik ez dira eskoletan.

Echeita irakasle Madrildarrak zioenez, gizabanakoaren ikuspegiak gain, ikuspegi soziala bultzatu beharko litzateke eta eskolak, aldaketetan sinistuz, presio eta euskarri lanak jorratu beharko litzuzke, ikastetxe eta komunitatearen arteko elkarlana bultzatuz.

Arratsalde batean izandako mahai-inguruan kexu azaldu ziren gurasoak bere seme-alabei eskolak ez dielako behar dena eskaintzen. Kexu ziren, batez ere, ezinduk adinean aurrera joan ahala, arazoak gehitzen direnean, errekurtsuen eskasia nabaria delako.

Telegrapak

Kaixo irakule maittiok. Stop. zer barri?. Stop. zaharrak barri ezta?. Stop. zoritxarrez bai. Stop. barri onak balira gaitzerdi. Stop. ez daukagu Euskal Herrixan goizero umorez jaikitzeke arrazoi asko. Stop. beste Soralezetar bat preso. Stop. aspertuta dago jentia. Stop. hau, hori, hura. Stop. handik edo hemendik. Stop. baina konpon bidian jarri bihar dogu herri hau. Stop. berri hobiak datoz RK Zulotik. Stop. musika, antzerkixa, literatura... Stop. sormena. Stop. guztion eskura. Stop. eskutik eskura. Stop. ia ikasten dogun geure kabuz gozaten. Stop. osatzen. Stop. lotsatzen. Stop. botatzen. Stop. mobimendu kulturala. Stop. benetakua. Stop. bixi bixirik dago herrixan. Stop. edozein ideiak balixo dau. Stop. edozein ideia kritiko, abstrakto, ulergarri edo ulergaitz. Stop. animatu. Stop. merezi dau. Stop. zulotik urtetzeko laguntzia moduan. Stop. pobrien kontuak beti eukitzen dabe fama txarra. Stop. beti ondokuanan inbrixaz gabiz... Stop. poztu!



Argitaratzailea:

Pii-pilean Kultura Elkartea

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze.

Telefonoa 943 75 13 04

comunidades.kzgunea.net/PiiPileanKulturaElkartea/EU
pii-pilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pii-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pii Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

Azken urteotan orokorrean bizi kalitateak gora egin duen arren, oraindik ere badira txirotasun eta bazterketa soziala jasaten duten pertsona asko gure artean. Langabezia, drogo-menpekotasuna, bazterketa edo bestelako arazoiren bat izaten dira egoera horretara iristeko arrazoiak. Jendea egoera horretatik ateratzen laguntzeko lan egiten dute besteak beste Udaleko Ongizate Sailak eta Caritasek.

Zorion agurrak



Eduardo Pombar
Abenduaren 3a
25 urte
ZORIONAK!!
Zer litzake Pil-
pilean zu barik?
Pil-pilean.



**Maialen
Elizburu**
Abenduaren 18a
ZORIONAK!!
Andre Madalen,
Andre Madalen..
Pil-pilean.



Koldo Krespo
Azaroaren 24a
ZORIONAK!!
Gure onatari
txintxuari bihotz-
bihotzez etxeko-
ak. Baina batez
ere Ibonek!



Ibon Krespo
Azaroaren 12a
ZORIONAK!!
Gure txantxikiari
bihotz- bihotzez
etxekoak. Baina
batez ere Koldok!



Antonia Celemin
Azaroaren 24an
70 urte
ZORIONAK!!
Besarkada bat eta
urte askotarako!
Pil-pileanen partetik.



Ivan Ayora
Azaroaren 30ean
8 urte
ZORIONAK potxolo!
Kriston fieria egin zara e! ondo
pasau eguna!
Arrebian eta gurasuen partetik.

Merkatu Txikia

Kirol arduraduna

Udalak kirol koordinatzailea behar du
Kiroldegirako. Kurrikulumak aurkezte-
ko azken eguna: abenduaren 5a.

Desbrozadora salgai prezio onean.
Jonscred JR-50 markakoa.
943120308 (Pili).

hildakoak

Mari Karmen Inza (Sor Karmen)
Gregorio Arenaza
Eulugia Arzuaga Anduaga

ezkonduak

Gorka Prieto eta
Sandra

jaiotakoak

Naroa Gil Ayora

Gutunak

Etxebizitza eskubidea?!

Pasa den aleko kolaborazioaren inguruan, "Kale Kantalian" soraluzeko etxebizitzaren aldeko plataformari, oso interesgarria iruditzen zaio jendea etxebizitzaren arazoaren inguruan hitzegiten ikustea.

Beharrezkotzat jotzen dugu.

Iritzia irakurri ahala hainbat hausnarketa egitera eraman gaitu:

Egia den arren gero eta jende gehiago ikusten duela independizatzeko beharra, independizatzeko hau inoiz baino berandua ematen a (30 urte inguruan), eta plentxiako gazteriarengan ere, hau isladatzen da.

Zergatik ordea, jendea ez da lehenago etxetik joaten saiatzen? Erantzuna erraza dugu. Egia esan, ez dago norbera independizatzeko erraztasunik eta kontuan izanik etxebizitza eskubidea dugula, erraztasunak gailendu beharko liriteke.

Adibidez: nolatan ematen zaizkio horrenbeste erraztasun merkatu libreari eta batera ez babesturiko merkatuari edo etxe hutsei?

Ondorioak argiak bezain latzak dira. Merkatu librea bultzatzean, eraikitzaile zein kontratisten esku dago m2-aren prezioa inolako muga gabe ezartzea babesturiko merkatuan, legedi baten pean dauden heinean. Gainera, merkatu libre hau herriko errealitatea aztertu gabe ematen da zeren eta artikuluan aipatzen den bezala,

zenbat etxe huts dago soraluzen? Jendeak, zer behar dauka? Ez dakigu. Ez baitago (edo ez digute erakusten) honen inguruko inongo azterketarik eta azterketa egiteko-tan udalari dagokio egitea.

Beraz, guzti honen ondorioak lotsagarriak dira. Inongo azterketa gabe, eta eskaera zein den jakin gabe udalak sekulako propaganda egiten du Saciakoak bezalako etxeekin. Hau, jakina, ez da soluzio erreal bat!

Ondorioz, plataformakideok gure buruari galdetzen diogu ea udala eta eraikitzaile zein kontratistak ez ote diren behar horretaz aprobetxatzen ari. Ez al duzu uste irakurle?

Arazoa benetan larria da eta egoera zein ondorioak larriagotzen doaz. Beraz, jendea animatzen dugu honen inguruan (Nereak bezala) hausnarketa egitera eta ondorioak edo galderak behar diren tokira eramatera, zeren egoera honek badu erantzulerik.

Kale Kantalian
Etxebizitza plataforma

Eibar-Gasteiz autopista

Garapenaren izenean zabalduko dute laister Eibar-Gasteiz autopista. Beste proiektu txikitzaile bat gehiago ongizatearen izenean. Baina noren ongizateaz ari dira? Proiektu hau eginda dago, faltsukeriaz eta iruzurrez beterik eraman dute

aurrera (gogoratu NIPak); herritarrok ere hitza bagenuela sinistarazi nahi ziguten, gero aurpegira barre egiteko.

Garbi dago batzuen diru goseak ez duela mugarik. Alde batetik bestera korrika nahi gaituzte, gure diruak azkarrago xahutzeko, hausnartzeko denborarik gabe, komunikazioa inkomunikatzeko. Ez dugu gure auzoa ezagutzen, baina zer axola digu, super hiriak, super portuak, super zentro komertzialak... egin dizkigute, super zorientsuak gara.

Baina bueno, super tontoak ere ez gara, eta jabetu beharra daukagu, abiadura hontan kontrola galtzen dela. Frenorik gabeko progresorearen trenak noraino eramango gaitu? Bada ordua ezetz esateko. Ezetz martxan dauden proiektuei eta aurrerago egingo dituztenei. Ez ditugu behar eta ez ditugu nahi; ez autopistarik, ez superporturik, ez A.H.T rik, ez Itoitz bezalako hilerrik.

Larunbatean egun osoa beharko dugu Bergararik Eibarrera iristeko, eta gustora gainera. Bergaran hamarretakoa, bazkaria Soraluzen, afarimerienda Eibarren eta eguna bukatzeko kontzertua Eibarko gaztetxean Hurto, Sin ofizio ni beneficio eta Paso a paso taldeekin. Animatu eta etorri zu ere!

Eibar-Gasteiz autopistaren
aurkako plataforma

Pil-pileanek irakurlearen eskuetatik eskatzen ditu. Ahalik eta eritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni, espazio gabeko Pil-pileanek irakurlearen eskuetatik eskatzen ditu. Ahalik eta eritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni, espazio gabeko 1.300 karaktere baino gehiagoko gutunak idaztea. Laburtu behar izan ezker, Pil-pileanek bere esku du horretarako eskubidea.

Telefonia 75 24 09

ARRANO

tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

LAUDIN

PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g tf: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE

Zer irizten dotsazu?

Udaleko gizarte zerbitzuak eta Caritas erakundeak besteak beste, gizartean aurrera egiteko arazoak dituzten pertsoneri laguntzen diete. Orohar, herritarren artean laguntza hauen banaketarako erizpideen inguruko zalantzak izaten dira sarritan. Soraluzetarrok ze eritzi dugu gai honen inguruan?

Ze iruditzen jatzuz laguntza sozialak eta banatzen diran modua?



Felisa Ballesteros
70 urte
Jubilatua
Ondo iruditzen jata laguntzak emotia, ez daukanari, daukanari emotia ez dao ondo. Laguntzak ondo banatzen dirala pentsatzen jata.



Oskar Gorostidi
40 urte
Zaintzailia
Laguntza sozialak beharrezkoak dia, laguntza mota danak dare ondo, bai udaletxiak emoten dittuanak bai udaletxe kanpotik emoten dianak be, danak dia biharrezkuak. Ez dao laguntza asko baina emoten dianak ondo bideratuta darella pentsatzen jata.



Eneko Berraondo
16urte
Ikaslia
Laguntzak emotia ondo dao, baina herrikueri geixau lagundu biharko litzaixueke. Gaztieri be gehixau lagundu biharko litzaixueke, udaletxiak laguntza gehixao emon biharko leuke.



Olaia Ballesteros
30 urte
Etxekoandria
Ondo emonda balere ondo egongo lirake, baina ez da hori pasatzen, askotan bihar ez dabenari emoten dotxe, eskatzera juten dia eta emon, eta benetan bihar dabenak ez dau jasotzen.



Pilar Blanco
58urte
Etxekoandria
Ondo iruditzen jata laguntzak egotia, nahiz eta batzuetan bihar ez dabenari emoten jakuen, eta hori ez dao ondo. Udaletxiak batzutan ezer egitten ez dabenari emoten dotsaz laguntzak. Gaztiendako egon biharko litzake laguntza geixao.



Marciano Rascon
73 urte
Jubilatua
Ondo iruditzen jataz laguntzak, baina banatzen dianian ez dakit beti ondo banatzen dian, igual hobeto banatu biharko lirake.

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA



Belarrak

Loradenda
eta belardenda

Erosketak etxera
eramango dizkizugu

Telf. 943 75 30 11

GAParen aurkezpena HHIn

Azaroaren 13an aurkeztu zuten HHiko egoitzan, datozen hilabeteetan Debabarreneko herrietan martxan jarriko den ingurumeneko GAP (Global Accion Program) egitasmo pilotua.

Egitasmo pilotu honek, herritarren eguneroko bizimoduan ingurumenarekiko ardura bultzatzea du helburu eta horretarako datozen asteetan izena eman dutenen artean informazio aldizkariak banatuko dira. Soraluzen ehundik gora lagunek eman dute izena.



Erresidentziako Karmen hil da



Azaroaren 11an hil zen azken zortzi urteetan Zaharren Egoitzako ama nagusia izan den Sor Karmen Inza lekai-mea. Legazpiarra jaiotzez, berriki bete zituen 50 urte Merzedaria egin zenetik eta 71 urterekin hil da, gaixotasun-

luze baten ostean. Ezagutu zuten guztiak bat datoz bihotz oneko eta langile nekazina zela esaterakoan.emakume

Azaroaren 12an egin ziren hileta elizkizunak Soraluzeko parrokiaren eta jende asko bildu zen azken agurra egitera.

Eibar-Gasteiz autopistaren aurka



Joan zen larunbatean, Eibar-Gasteiz autopistaren aurkako aldarrikapen eguna antolatu zuten Bergara, Soraluze eta Eibarko Gaztetxeek. Horretarako Bergaratik Eibarrera joan ziren oinez "Autopista zertarako?" leloa zuen pankartarekin. Modu honetan "autopistak gizartearen eta ingurumenean izango duen eragin kaltegarria" salatu nahi izan zuten, beste garapen eredu batzuk posible direla aldarrikatuz.

Ostiral honetan odol ematea Ikastolan

Ostiralean, azaroaren 28an, arratsaldeko 19:00etan, odol ematea izango da Ikastola Zaharreko eraikinean.

Kiroldegia hartzeko deialdia abenduaren 5rarte zabalik

Zabalik dago dagoeneko Udalak Kiroldegiko instalazioen ardura hartzeko ezarri duen lehiaketara aurkezteko epea eta abenduaren 5erarte luzatuko da.

Deialdiaren arabera, Kiroldegiaren hartzaileak; igerilekua, frontoia eta gimnasioaren kudeaketa eta esplotazioa hartu beharko ditu bere gain, kontratuaren iraupena 2004ko urtarrilaren 1etik 2005 abenduaren 31 bitartetarako izango delarik, automatikoki urtebeteko luzapenak eginez.

Deialdira aurkezteko, enpresaren agiriez gain, hautagaien ahalmen tekniko eta profesionalak biltzen dituen txostena ere aurkeztu beharko da, alkateak, Kirol batzordeko kideek eta idazkariak osatutako mahaiak erabakia har dezan.

Deialdia gehiengoz onartu zuen Udalak, EAJ, EA eta PSEeko zinegotzien aldeko bozkaz. AHko zinegotziek aurkako botua eman zuten, euren usteetan "Kiroldegia publikoa den heinean, kudeaketak Udalaren esku" izan beharko lukeela argudiatuz.

Soraluzeko EAJn Egibar nagusi

EAJko Euskadi Buru Batzarreko Lehendakarietzarako hauteskundearen lehenengo itzulian, Joseba Egibar izan da aldeko boturik gehien jaso dituen hautagaia. Soraluze EAJren batzordeak jakinarazi digutenez, lehenengo itzuli honetan Soraluzen ere Egibarren alde azaldu dira afiliaturik gehienak. Bigarren itzulia abenduaren erdialdera egingo dute eta abendu amaierarako Lehendakari berria hautatua izatea aurrirakusten dute.

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko
arraina
eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnua 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69





Regina Maiztegi gartzelaratu dute

Joan zen azaroaren 18an, asteartean, Garzon epaileak agindutako operazio polizial baten barruan, Espainiar Poliziak Regina Maiztegi soraluzetarra atxilotu zuen Sevillan. Ostiraletan Garzon epialearen aurrean deklaratu ostean Soto del Realen espetxeratzeko agindu zuen epaileak eta bertan dago ostiraletik.

Joan zen asteartean goizeko hamarrek aldera atxilotu zituzten Sevillan oporretan zeuden Regina Maiztegi eta berarekin zegoen beste soraluzetarra bat. Reginarekin batera atxilotutako soraluzetarra komisaldegira eraman eta handik ordu batzuetara utzi zuten aske inolako kargurik gabe. Reginari berriz inkomunikazio egoera ezarri zioten. Operazio berean atxilotutako 14 lagunetatik 10 espetxeratu ditu epaileak eta 4 aske utzi ditu. Atxiloteta hauek, Garzon epaileak ETAre berrantolaketa erabiltzeko arduradun zirenen aurka agindutako operazio polizial zabal baten barruan kokatzen ziren.

Atxiloteten berri jakin orduko, deituta, "Regina eta besteak askatu! torturarik ez!" lemapean elkarretaratzea eta manifestazioa egin ziren asteartean bertan. Asteazkenean, Udal Batzar Berezia egin zen eta Udal Batzarrak, EAJ, EA eta

AHko zinegotziak bertan zirela (PSEE eta PPko zinegotziak ez ziren agertu) aho batez onartu zuen ondoko adierazpena egitea; "1- Soraluzeko Udalak bere kezka azaltzen du Regina Maiztegi soraluzetarraren atxilotetaren aurrean. 2- Errugabetasun ustea errespetatzea eskatzen du. 3- jasaten ari den inkomunikazioa berehala jasotzea. 4- Regina Maiztegi atxilotuaren egoeraz kezkatzea eta jarraipena egitea. 5- Onartutako akordioa Barne Ministeritzari bidaltzea eta era berean publiko egitea." AHko zinegotziek hitza hartu zuten eta "Madrilek Euskal Herriaren kontra martxan daukan erasoaldiaren barnean" kokatu zituzten atxilotetak "beste urrast larri bat" moduan hartuz, inkomunikazio egoera salatu eta Reginaren askatasuna eskatu zuten.

Udal Batzarraren ostean, elkarretaratzea egin zen Plaza Barrian eta EAJ

eta AHko zinegotziak eta alkatea bera ere bertan izan ziren. Udaleko langileek euren aldetik, Regina Maiztegi lankidearen "osotasun fisiko eta psikikoa bermatzeko eta errugabetasun printzipioa errespetatzeko" eta "inkomunikazio egorerari amaiera jartzeko" eskatzen zuten agiri bateratua kaleratu zuten.

Ostegunean elkarretaratzea egin zen plazan, eta ostiraletan autosean joan ziren hainbat plazentziatar eta jakinarazi digutenez espainiar polizia nazionalak autobusa gelditu eta hainbat bidaiari identifikazio manifestazioa ere egin zen "Regina askatu", "torturarik ez!", "Euskal Presak Euskal Herrira!"... eta antzeko aldarrikapenak entzun ziren manifestazioan. Senideek jakinarazi dutenez, astelehenean Soto del Realgo espetxean bisitatzeko aukera izan zuten.



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefona 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefona 943 75 13 99
SORALUZE

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



Udaleko Gizarte Zerbitzua eta Caritasen laguntzak aztergai

Azken urteotan orokorrean bizi kalitateak gora egin duen arren, oraindik ere badira txirotasun eta bazterketa soziala jasaten duten pertsona asko gure artean. Langabezia, drogomenpekotasuna, bazterketa edo bestelako arrazoiren bat izaten dira egoera horretara iristeko arrazoia. Jendeari egoera horretatik ateratzen laguntzeko lan egiten dute besteak beste Udaleko Ongizate Sailak eta Caritasak. Pertsona horiei ematen zaizkien laguntzen eta berauek banatzeko erabiltzen dituzten erizpideen berri jakin nahi izan dugu ale honetan.

Oso ohikoa da jendearen artean, Udalak eta Caritasak baztertuekiko egiten duten lanaren inguruko kritikak entzutea; "kanpotarrerri dana emoten jakue eta hemengueri ezebez" eta "azal ilunaua daukelako etxia emoten dotse" moduko esaldiak esaterako sarri entzuten dira gure artean. Gehientsuenetan gaiarekiko informazio askorik ez duten eta esames hutsetan oinarritzen diren funtsik gabeko eritziak izaten dira baina poliki poliki, errepikatzearen indarrez egiantzeko berri moduan hedatzen dira gizartearen. Udala eta Caritasako arduradunek emandako azalpenen ostean, uste hau baieztatu besterik ez digute egin.

Caritas; erropak, dirulaguntzak eta laguntza morala

Caritaseko arduradunek azaldu digutenez, erropak eta dirulaguntzak emateaz gain, euren gaitasun jotzen dutenei laguntza morala ematea izaten omen da eguneroko egin behar nagusia. Hilero 12 lagun berri inguruk jotzen omen dute Caritasera eta era guztietako laguntzak banatzen omen dituzte; "Jentia pentzatzen dau hona datozen danak diru bila datozela baina jentia, edozein papela egitera, telefonotik deitzera, medikuanera zela jua jakitzera eta beste hamaika kontu jakitzera etortzen da. Lehen astero



Mari Karmen, Margarita eta Maria Jesus dira Soraluzeko Caritasen astearte arratsaldero jendearen eskakizunak eta arazoak atenditzen dituztenak.

"Jentia pentzatzen dau hona etortzen diran danak diru bila datozela baina jentia, edozein papela egitera, telefonotik deitzera eta beste hamaika kontu jakitzera etortzen da"

6 euro banatzen genduzen baina oin bokadillua bakarrik banatzen dogu".

Dirulaguntzei dagokionez, 30 eurotik 150 euro bitarteko hileko laguntzak banatzen dituzte, "jentia bere egoeria azaltzen dosku, guk baloraziño bat egin eta dana fitxetan jasotzen dogu eta eskaria egiten dogu Elgoibarrera. Batzuetan guregana datorrenak ez dau Udalian laguntzarik jasotzerik izaten eta guk laguntzen dotsagu. Hemengo jentia darian

dana papelen bittartez egiten dogu Udaltxikiak elkarlanian eta ondo enteratuta".

Azken urteotan Caritasera jotzen duten gehienak etorkinak omen dira, "gehixenetan lanian dabilen jentia da baina papelik ez daukana eta soldata txikixaguekin". Etorkinek dirua beste apreziatzen omen dute erropa, "ahal dabena kanpora bialtzen dotse senidieri, Ekuadorren esaterako oso garesti dago erropia". Etorkinei etxeak aurkitzeko emandako laguntzaren inguruan "etxerik bare zeren familixak" zirela azpimarratu nahi izan dute, "bestela ez zeuken aukerarik bizi izateko leku bat bilatzeko eta guk berme bat emon dotsegu etxe jabieri".

Herritarrek Caritasi ematen dioten babes eta laguntzari dagokionez, oso gustora daude, "azkenaldixan Elizan batzen diran dirulaguntzak pixkat bajatu egin dira baina laguntza bihar dogunian

Instalazioak
Berrikuntzak



Kiru Muntaiak S.L.

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 615 70 27 65



EDURTZA kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Eguneroko
menua eta
pintxoak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



Irantzu Benito Udaleko Ongizate Zerbitzuko teknikaria bulegoak espedienteak aztertzen.



Olako ibai ondoko etxebizitzak Hirigintzako Ordenantzatik kanpo daude eta Udala bizilagunekin etxebizitza horiek husteko aukerak aztertzen ari da.

beti laguntzen dosku jentia". Laguntza eman edo jaso nahi duenak, asteartero arratsaldeko 19:30etan abadetxeke egoitzan aurkituko ditu Caritaseko atekak zabalik.

Udala; larrialdietarako dirulaguntzak

Irantzu Benito da Udaletxeke Ongizate Zerbitzuko teknikarietako bat. Joan zen urteko sailaren aurrekontua 67.800 eurokoa izan zen. Bertatik ematen diren laguntzak era askotakoak direla azaldu digu baina jende behartsuari eskeintzen zaizkion laguntzarik ohikoenak; Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta Oinarritzko Errentari dagozkionak omen dira. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak etxearen alokairua eta eguneroko bizi-moduko gastu arruntak ordaintzen omen ditu (ura, argia...). Oinarritzko Errentak berriz horren beharrea aurkitzen dena pertsona bakarra izan ezkerro 426,38 euroko hileroko laguntza eskeintzen dio bere kabuz sarrerak izatea lortzen duen arte. Laguntza hauen kontrol eta jarripenerako datuak Udalean eta Foru Adundiko Ogasunean aztertzeaz gainera, irailetik aurrera "pertsona hauek bergizarteratzeko ahalegina egiten dabela ziurtatuko dabon teknikari bat izango da eurekin, ze azken baten laguntza honek hitzarmen bat dira eta jasotzen dittuanari be eskatu bihar jako bere ahalegina". Horretaz gain, "herri txiki baten bizi gara eta ixa danok ezagutzen dogu elkar, gu engainatu arren erabakixak artzen dittuzten politikuak be hor dare eta jakiten da kaleko berri".

Etorkinei eta beste talde sozial bazuiei ustez egiten zaien aldeko diskrimina-

"Foru Aldundixak ipinittako baldintzak betetzen badittu berdin berdin da pertsona hori nungua dan"

nazioaren inguruan Irantzuk oso argi esan digu hori ez dela horrela. "Foru Aldundixan baldintzak betetzen badittu, guretzat berdin berdin da nungua dan pertsona hori edo ze arrazatakua dan". Gainera, Udaleko zerbitzura jotzen duten etorkinak oso gutxi omen dira, "lanian darelako edo urtebete baino huxiago daroielako Gipuzkuan erroldatuta". Papelik gabe dauden etorkinak, Osasun Txartela ateratzera eta orain, papelek gestioaren inguruko kontsultak egitera joaten omen zaizkie. Eurak etorkinei etxebizitzak aurkitzen lan egin dutenaren zurrumurrua gezurra dela ere argitu nahi izan du, "jente asko etorri jaku alokairuko etxia topatzeko eskatzen baina guk ez dogu gai hori lantzen, zerrenda baten jartzen ditugu eskatzailiak baina hori ez dagokigu guri".

Guztira "80 espedientetatik gora" bete omen dituzte aurtengo urteari dagokionez. Gero eta jende gehiago hurbiltzen omen da informazio eske. "Asko aldatu dira gauzak azkenengo urtietan, oin jentia badaki ez datorrela karidade eske, edo tokatzen jako edo ez jako tokatzen baina berari dagokixon laguntza bat da." Dena dela, eta kontu hauen inguruan jendea gero eta informatuago dagoen arren oraindik ere bertako jendea eta batez ere edadekoa "asko lotsatzen" omen da gizarte zerbitzuetara joaterako orduan. Irantzuk informazioa ja-

sotzera animatzen du jendea.

Olako etxeen auzia

Orain bi aste PSEE-EEko zinego-

"Udala Olako etxebizitzetan bizi diren 3 familiei irtenbide bat ematen saiatzen ari da, etxebizitzaren erostea eurekin adostuz"

tziak, Olako etxeetako baten jabeari Udalak eta Foru Aldundiak emango dion dirulaguntzaren gainean egindako salaketaren inguruan, Ongizate Saileko arduradunak argi utzi nahi izan digu dirulaguntzen inguruko erabakiak politikoak hartzen dituztela eta beraz, euren bakkarik dagokiela horren inguruko eritzi publikoa ematea. Dena dela, Udala 50. hamarkadan legez kanpo eraiki ziren etxebizitza hauei eta beraz bizi diren 3 familiei lehenbaitlen irtenbide bat ematen saiatzen ari dela argitu nahi izan digu. Horretarako, Udaleko ordezkariak etxebizitza hauen jabe eta bizilagunekin negoziatzen ari omen dira, bakoitzari daukan egoerari aurre egiteko egoki irizten diotenlaguntza eskeiniz. PSEE-EEko zinegotziak salatutako kasua, hiru etxebizitza horietako bat erosteko jaberri emandako diruari dagokio. PSEE-EEko zinegotziak gehiegizkotzat jotzen du 30.000 euro inguruko kopurua eta Udal gobernu taldeak, Udalak 9.000 euro jarriko dituela eta gainontzeko Foru Aldundiak jarriko duela azpimarratu nahi izan du, jarraitu den jardunbidea egokitzat eta beharrezkotzat jotz.

Txan Magoaren emanaldi arrakastatsua



Joan zen larunbatean hilak 15, Pil-Pilean kultur elkartearen eskutik eta Topaguneko Kultur Errota zirkuitoaren barnean, gaztetxean burutu zen magia emanaldian haurrak izan ziren protagonista. Txan magoak, trikimailu eta joku ezberdinekin, bertaratu zen ikusle gazte zein heldu ugariak txundituta utzi zuen.

Itxaropenako karta lehiaketa



Joan zen azaroaren 14an banatu ziren Itxaropena elkarteko karta txapelketetako sariak. Hona hemen lehenengo eta bigarren sailkatuen zerrenda:

MUSEan Jose Luis Perez eta Ruiz, eta Ramon Gomez eta Juan Alonso.

TRUKean Bittor Trebiño eta Se-

bastian Arriaga, eta Paco eta Jesus.

TUTEan Pedro eta Anjel, eta Eloy eta Juan Nieves.

BRISKAN

M. Luisa Alberdi eta Ziriaca Aranzabal, eta Teresa Hernandez eta Karmen Arrieta.



RK ZULOren egitasmo berriak

Pasa den ostiralean, hilak 14, RK-ZULO-ren aurtengo asmoak aurkeztu eta ideia berriak jasotzeko afaria egin zuen Arrano elkartearen. Berrikuntzen artean, musikaz gain, beste esparru artistikoei ere lekua egitearen beharra mahaigaineratu zen. Edizio berrirako, urtean zehar egingo diren ekimen desberdinak eta jaialdia (ihazkoa bezalako) bereiztea pentsatu da. Ekimen hoiaren artean aipatu ziren poesia, antzerkia eta ikus-entzunezkoak, besteak beste.

RKZULOk, gune bat izan nahi du edonork bere kezka artistikoak bertan garatu ahal izateko. Horretarako, koordinazio eta informazio lanak beteko dituen batzorde eragile (comité de base) ireki bat osatu da. Dinamika iada martxan izanik, hurrengo zita abenduaren 14an izango da arrano elkartearen arratsaldeko 19:00etan. Bertan, jendearen ideiak jasotzearekin batera, proiektu ezberdinak abian jartzeko astia hartu nahi da.

Maltzagako artelana



Hil honetan bertan jarri dute Maltzagako bidegurutzean, tolojungintzako makina fresatzailea sinbolizatzen duen irudia. Gipuzkoako Foru Aldundiak jarri du irudia Debarreneko industria tradizioaren omenetan.

تذکت پوچھت گت جت جت جت

GAZTELUPE taberna

tel: 943 75 20 81

تذکت پوچھت گت جت جت جت

Argitalpen honen laguntzaile

kutxa

zuri esker

Gaztañerre 2003



1- Aurten ere barazki psturik edarrenak saritu ziran. Arrieta basarrikuak geldittu ziran hirugarren, Haritzakuak bigarren eta Lezarrikuak txapeldun. Sari banaketaren ostean, Uzkate basarriko Joxepa eta San Martzialgo Sebastian omendu ziran.



2- Baba prestaketan argi geldittu zan, buruan txapela eta lepuan zapixa jantzi ezkeru, edozein izan leikela sukaldari. Sukaldariren batzuk txorixo eta odoloste bila ibili ziran baina alperrik!

3- Eta bazkarittan zoramena. Tantaka tantaka, 200 lagun baino gehixago batu ziran bazkarittara. Banatu zan menurako garesti xamarra izan ete zan be esan zan. Datorren urtian merkiago!



4- Tongo eta guzti baina honek izan ziran aurtengo txapelketan lehen hiru postuetan sailkatu ziran sukaldarixak. Eskerrak, baba hilgarri horrek probatzen epaile lanetan ibili ziran (eta dagoeneko gure artian ez daren) Maria Jesus Arrizabalaga, Iñaki Cerrejon, Jabier eta Olatz Oregiri, eta zelan ez, Gorka Prieto aurkezliari be bai!



5- Eta bazkalostian kriston berbenia frontoian. Aspaldiko partez izugarrizko jente piila batu zan trikiritxa, korro eta agarrauen dantzaldira. Edari pixkat eta umore ona nahikua izaten dira askotan albokuari eskua sartzen ahalegintzeko!

Mendizaletasuna

Berriz ere Suso txapeldun



Suso, lasterketaren irabazlea 2. eta 3. sailkatua aldamenean dituela.

Joan zen azaroaren 15ean jokatu zen urteroko Karakatera Igoera lasterketa. Azken 7 urteotan moduan Jose Mari Fernandez "Suso" elgoibartarra izan lasterketako txapelduna gainontzeko 15 lasterkarien aurretik sailkatuta. Carlos de Cos soraluzetarrak ere hartu zuen parte lasterketan eta 4. postu bikaina lortu zuen asko sufritu eta gero.



Carlos de Cos soraluzetarra lasterketako azken metroak betetzen.

KARAKATE IGOERA / 2003 SAILKAPENA	IZENA	DENBORA
1.	Jose Mari Fernandez	32'12
2.	Ibon Gabilondo	32'39
3.	Juan Cruz Montes	32'46
4.	Carlos de Cos	33'45
5.	Joseba Altuna	33'54

Atxa Memoriala abenduaren 7an

Datorren abenduaren 7an egingo da aurtengo Atxa Memoriala. Estaziotik Ola auzora bitarteko lanak direla eta, aurtun Ezozi bidetik Estaziora igo eta etxaburuetatik zehar jeitsiz 6 buelta eman beharko ditu nagusien mailako 9.600 metroko ibilbidea egiten duenak.

Markagailua

FUTBOLA

EMAITZAK
Erregionala
 Eibartarrak 4 SORA 0
 SORA 2 Mutriku 2
 Sailkapena: 15. postuan (16tik) 4 puntu
Jubenilak
 SORA 2 Burumendi 0
 Eskolapioak 2 SORA 2
 Sailkapena: 12. postuan (18tik) 13 puntu
Kadetea
 SORA 0 Ikasberri 2
 Elgoibar 13 SORA 0
 Sailkapena: 5. postuan (8tik) 8 puntu

HURRENGO JARDUNALDIA

1. Intxurre - Soraluze
2. Soraluze - Bergara
3. Soraluze - Zestoa

PELOTA

SORALUZETAKO KLUBA (KADETEAK)
 Gipuzkoako Kluben Artekoan Tolosan
 22 - 10 galdu zuten Garziak eta Varelak.
Haritz Laskurain (Iruñan)
 Pinedo - Leiza 18
Laskurain - Berraondo 10
Erlei Txurruka
 Eskukominaekin dago.
Iñaki Jauregi
 Gipuzkoako Banakako Txapelketan
 Amezketan (Ordezko moduan)
 Haritz 22 - Jauregi 13
 Datorren asteburuan Bikotekako Euskal
 Ligarako sailkapen ligako partidua izango du.

BEHOBIA-DONOSTIA

Postua	Izena	Denbora
96	Zigor Esnaola	1:11:41
569	Carlos de Cos	1:20:01
722	Jagoba Zubiaurre	1:21:41
1093	Gonzalo Ariznabarreta	1:24:32
1914	Gorka Tornos	1:28:51
4352	Luis Ariznabarreta	1:38:42
4454	Bittor Trebiño	1:39:03
5208	Aitor Rodriges	1:41:47

Mendizaletasuna

Mendizaleen babajana Txurrukan



Igandean, Soraluzeko Mendi Taldeak antolatuta 40 bat lagun joan ziren Deskargatik Irukurutzetara. Mendi ibilaldiaren ostean babajana izan zuten Txurruka jatetxean.



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



Limpiezas Trejo, S.L.

Rekalde, 30 behea
 Tel.: 943 75 25 57
 Faxa: 943 75 25 56
 20.590 SORALUZE

Aritz Albisua

Nere gustoko pertsona rubixia, begi urdina eta jatorra izan behar da

Gaur Frontoira joan gara mutiko baten bila eta han topau dogu Aritz Albisua gaiztokerixetan baina grabadoria piztu doguan transformatu egin da, Sintxan kamara aurrian moduan. Begirada galduta, irribarre egonkor batekin, seko lelotuta lelotuta gelditu da. Hau da mingainetik tira eginda etara dotsaguna.

Izena, abizena eta adiña

Aritz Albisua, 11 urte
Zenbakixa, anialixa, koleria eta abestixa.

Zenbakixa 11, animalixa zaldixa, koleria berdia eta abestixa Ken 7 ren Cdko lehenego abestixa. Ez dakit zela deitzen dan.

Ze gustatzen jatzu egitteia zure aisialdixan?

Futbolian eta pelotan jolastia lagunekin.

Zure gustoko menua

Arroza eta okelia.

Zer da Soraluzek daukan gauzarik onena?

Frontoia.

Hiru desio.

Bakea, osasuna eta hirugarrena ez dot bihar. Horrek bixok.

Zela ikusten dozu zure burua hemendik 20 urtera?

Ba, ez dakit, lantegixan lanian eta igual ezkonduata.

Zelakua izan bihar da pertsona bat zure gustokua izan dein?

Rubixia, begi urdinduna, atsegina eta jatorra.

Telebistako saio bat.

Goenkale egunero ikusten dot.

Zein da zuretzat eguneko momenturik onena?

Arratsaldian ikastolatik urtetzen dotenian.

Ze egingo zenduke miloi bat eurokin?

Kontrolau, ez gastau dana batera, baina auto haundi bat erosiko neuke.

Pelikula baten ze paper egingo zinueke gustora?

Ba ez dakit, protagonista eta lapurra.



Aritz Albisua

Beti gogoratuko dozun eguna?

Jaunartzekoa.

Zelakua zara zu?

Pertsona jatorra eta lagun laguna.

Soraluze.....

Herri polita baina bidegorriza falta jako.

Nora, zeinekin eta zertara?

Hondartzara, lagunekin, surf egitera.

Ze egitten dozue gabonetan etxian?

Jaiotza eta zuhaitza jarri eta asko jan.

Bukatze txiste bat

Bertso Begiz

*Mutil lotsati ta bihurrixa
geldi egon ezin dana
futbol eta pelotan gustora
etxako gustatzen lana
zarautzera surfera
lagunekin batera
neskatxa rubixengana
horren gaztia izanagaitxik
oso garbi daka dana*

Eneko Beretxinaga

(Doinua: Iparragirre abila dela)

Gizon bat juaten da medikura eta esaten dotsa: "Arazo larrixa daukat, baina ez egin barrerik" eta medikuak galde-tzen dotsa ia zein dan arazua eta honek barrabil bat oso haundixa daukala esaten dotsa. Medikua barrezka eskatzen dotsa erakusteko. Berak eskatzen dotsa ez egiteko barre eta barrabil bat erakusten dotsan medikua barrezka hasten da eta orduan gizonak esaten dotsa: "ba orduan ez dotsut erakutsiko haundixa".



SAN ANDRES
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

ARMENDIA
JATETXEA



Ezoz Auzoa, 11
20590 Sorluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

Argazki zaharra



1962. urteko antzeslana Soraluze Zinian

“La Educación de los Padres” antzeslanaren pasarte bat dugu argazkian. Bertan ezkerretik eskubira ezerita Javier LLuch eta Marines Bolunburu ditugu. Eskuman Valeriano Madrid (biboteduna) eta Eloi Uriarte (abaria) azaltzen dira. Hiru aldiz eskeini zen antzeslan hau 1962ko otsailaren 21, 23 eta 26an.

Valeriano Madridek lagatako argazkia

Lehiaketa Berria

Zer dago soberan edo zer faltan ondoko argazkian?



Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

DEITTU
943 75 13 04 ra

Aurreko irabazlea: Maite Kintanilla
Erantzuna: Etxebarria

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

HORTZ KLINIKA

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behean, telf: 943751789

ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa Berogailuak Sukaldeak eta Bañuak



Santa Ana, 20 Behea
Tlfonoa: 943 75 12 41
Sakeleko tlfonoa: 639 17 96 96

IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze





Ugaraxo



Kurtso hasiera!!

Kaixo, gu ikastetxeko gaztetxoek gara, ez txikiak, gu handiak baikara.

Aurten sartu gara lehenengo eskolara, 2 urte ditugu eta oso pozik gaude lagun berriak ere egin ditugulako, ez baikinen elkar eza gutzen.

Motxila, argazki eta gure etxe-koen argazkien albunarekin etorri gara. Triste jartzen garenean liburua zabaltzen dugu beraiekin egoteko.


Aurten 28 laguntxo elkartu gara; txapeldunak neskak gara, 19 eta mutilak berriz 9. Gurekin bi heldu egoten dira, batzutan ez diegu kasurik egiten, besteetan berriz jolas politik antolatzen dituztenean edo jatekoa banatzen dutenean denok hurbiltzen gatzazkie.

Gehienok Sorraluzen jaiok gara, baina bagaude urrun jaiotakoak ere, badakizue non? Guayaquil eta


Maracay-n. Non dauden? Ba, Ekuadorren eta Venezuelan.

Guayaquil Guayas probintziako hiriburua da. Portua eta aireportua ere ba ditu. Oso oso hiri handia da, 1.300.868 biztanle ditu. Ozeano Barean duen portutik banana, kakaoa, kafea, ehunak, oinetakoak, zementua bidaltzen dira, eta petrolio findegia ere badago. Guretzat bananak eta txokolata egiteko kakaoa, ze goxoak!!

Hurrengo orrira pasa



Plaentxi H. I. eta Pil-pilean aldirikarixa elkarlanian
ALDIZKARI HONEK UDALAREN DIRULAGUNTZA JASOTZEN DU
EUSKARA BULTZATZEKO



Kurtso hasiera!! (jarraipena)

Maracay aldiz mendi eta laku artean kokatuta dago. 477.000 biztanle ditu eta

El Limón eta El Castaño ibaiak zeharkatzen dute. Hainbeste zuhaitz eta arbola ditu Venezuelako Lorategia deitzen diotela. Museo asko eta zoologikoa daude eta bertan azukrea, kafea, kakaoa, eta artoa ematen dira, industri eta merkatal gune garrantzitsua ere bada.

Soraluzetarrak 4.160 gara. Gure herria txikia da, Deba ibaiak zeharkatzen du eta torniloak, armak,... egiten dira. Oso, oso antzinakoak omen gara, bertan trikuharriak baitaude.

Gu biok Plaentxira etorri gara nahiz eta askoz txikiagoa izan, baina zer ondo ibiltzen den kalean jende gutxiagorekin, gainera Guayaquil eta Maracay-n



Ikasleek senitartekoen argazki albuna izaten dute gelan, triste daudenean begiratzeko.

ez bezala hemen bi hizkuntza ditugu, A ZER PAGOTXA!!

Gu gehienok, erdiak baino gehiagok, ez dakigu euskara etxekoek ez dakitelako baina

orain eskolan jolasean, abesten, ondo pasatzen ikasiko dugu, ez dugu aukera hau galduko, ezta pentsatu ere!!

Babadator...juan da!

Hi Babadatorrek arrazoia jaukan!


Datorren urterako dandolin bat erosi biharko juau!

Zuek gixauxuok! zarrata asko baina aurten ez da gaztaina errerik izan azokan! babak izan gara nagusi! prrrufft! gora puzkar giroa!



Joan zen azaroaren 8an egin zen Gaztañerre azoka herrian. Gaztañerreak eta Babadator ere azokan izan ziren eta haserre xamar amaitu zuten eguna.





Inkestatxiki

Munduko zein lekutara juango ziñake? zeratarara?

ANA VERGEL 5.MAILA A

Pariserara. Parkietan eta Eiffel dorrian jolastera.



IKER BENITO 6.MAILA B

Ni Teneriferara. Ba han ez dagualako txapapoterik eta hondartzan bainatzeko urte guztian zihar.



AITOR OREGI 3.MAILA A

Ni Pariserara juango nintzake. Bertako parkeetan jolastu ahal izateko nere anaiarekin.



IRENE ALVAREZ 6.MAILA B

Ni Unibertsora juango nintzakelurrian aspertu egiten naiz eta.




EsaiXozu

Aupa errela! Liga irabazterara! a pike real madrid! (Ainhoa, Katariñe eta Mainer) Jose Tardi onena zara eta Bea ere bai, segi horrela! (Irene) Ramonek bigotiak ditu (Imanol) 6. Mailako ikasliak ikastola berria ikustea nahi dugu (Ane L.) Aupa erreal! Eta Nihat onena! (Oihane A. eta Maite D.) Etxekolan gutxiago Jose T. eta broma gehixeago! (Janire M. Eta Oihane A.) Beste ikastola ez dugu nahi, Portaventurarako 2 sarrerra bai! (Iziar E. eta



Markel B.) Aupa Sora! (Jon L.) Xuban, izan gure entrenatzailea! (Jon L., Mikel, Oier, Urko, Victor eta Eneko) Ugaitz, badakit neska polita daukazula baina ez da hainbesterako!

(Jon G.) Maisuak azterketa asko jartzen dituzte, gutxiago jartzea eskatzen dugu! (Maite D. Eta Ane K.)



Lehiaketa

Pertsonaia ezaguna

Esaiguzu zein dan argazkiko pertsonaia ezaguna...!

Sari sorpresa irabazi zeinke!!

Bialdu e-mail bat
pilpilean@euskalnet.net
edo deittu
943 75 13 04ra



Maixuari azterketa

Beatriz Basurto

42 urte



-Zer erakutsi dizute zure ikasleek? Gaur egunian berba gutxi egiten dala.

-Azterketetan jarri dizuten erantzun bitxiena? Aurten, Unibertsoa zela sortu zan galdetzen genduan eta erantzuna izan zan Jesusek sort zebala.

-Zer izan nahi zenuen handitan? Albaiteroa.

-Inteligentzia, lana ala zortea? Inteligentzia.

-Zer egingo zenuke berriz jaioko bazina? Egin dotena, gustora nago egin dotenakin.

-Harrapatu zaituzte inoiz txuleta batekin? Ez, inoiz.

-Bete gabeko amts bat? Urtebeteko exzedentzia hartzia.

-Bizitza al da munduko irakaslerik onena? Bai. Bizitzako esperientziak asko erakusten dabe.

-Lan ona al da irakasle izatea? Gustatzen baxatzu bai, bestela esan leike munduko lanik txarrena dala.

Bi egunkari bakar batean



berria

www.berria.info
 4 LABORALISTA
 04 egunekoak
 06 sail finkoak
 08 elkarrizketak

Gerrarako argudioak balio gabe utzi dituzte arma ikuskatzaileek

TXOSTENA. Iraken suntsipen handiko armarik ez dutela aurkitu erakusten du AEBek propio osatutako ikuskatzaile taldearen txostenak



Txillidaren 200 obra Europar ikusgai

Elizabete Txillidaren 200 obra laguntza Europar ikusgai. Lehen erakusketa San Ferminetako Herriarengana irabazteko dantza, dantza erakusketa, Europa erakusketa, eta...



ARNALDO OTEGI
 DA BALIOKO GOBERNABURUA
 «Prozesuan nola lagun dezakeen gogoeta egiteko unea du ETAk»
 «Independentsiaren bidea jarraitzea erabaki gutxi, negoziatzea epe bat zehaztu behar da Estatuarekin»
 «Ezinezkoa da eraginik gabea eta galduta hartzat gero, ez da nahi gure herria»
 «Ezinezkoa da eraginik gabea eta galduta hartzat gero, ez da nahi gure herria»
 «Ezinezkoa da eraginik gabea eta galduta hartzat gero, ez da nahi gure herria»

berria

Informazioa

Informazio landu eta argigarria, diseinu berritzaile batekin emana



Astialdia

12 orrialde egunero

Gertuko gaiak

Elkarrizketak

Erreportaiak

Kronikak

Mendia

Moda

Gastronomia

jaiak...

GAURBERRIAN

BARESA MARTIGORREN JAI EGUNERAKO 10

LAGARRA EKI EGUNERAKO 16

GAUR 58 ORRIALDE

BERBIA 2.000.000, 4.000.000, 8.000.000, 12.000.000, 16.000.000, 20.000.000, 24.000.000, 28.000.000, 32.000.000, 36.000.000, 40.000.000, 44.000.000, 48.000.000, 52.000.000, 56.000.000, 60.000.000, 64.000.000, 68.000.000, 72.000.000, 76.000.000, 80.000.000, 84.000.000, 88.000.000, 92.000.000, 96.000.000, 100.000.000

ITSAS MENDI

Karabank

ITSAS MENDI KARABANK

ITSAS MENDI KARABANK

ITSAS MENDI KARABANK

mai de oio

www.hotsak.com

HOYSAK

...eta gainera

Mantangorri

Mendia ezagutu, natura maitatu

16 orrialdeko gehigarri koloretsua

Mantangorri:
 Larunbatetan
 16 orrialdeko gehigarri koloretsua
 haur eta gaztetxoentzat

IGANDEA

ZENT SUBATUA

Ahots isildua, boz ozena

ingurumena

Zure ekin dago

Igandea:
 Asteko albistek
 patxadaz aztertzeko aukera.

berria

BAT EGIN

SA taldeak hitza hartu du gaur Legebiltzarrean, PPS "talde hori ez da existitzen" esan arren

Urtegiaren sarkofago berritzaileak

Haurrentzako gaur bilduma

Nafarroako Parlamentuaren buruzko berriak

Internet:
 Edizio jarraitua,
 webgune tematikoak
 eta eztabaidagunak



SORALUCE

Fresaketa teknologia



SORALUCE
GRUPO DANOBAT

SORALUCE S.Coop. • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com

**GERO ARTE
SOR KARMEN!**



**Aloñaren magalean
Arantzazuren hegalean sortua,
hango edertasuna
zeneukan barneratua,
lekaidetzarako bidea
bertan zenduen hartua,
harrezkero izan ez dena
inoiz agortua.**

**Lehen hamasei urteak
Frantzian emanak,
beste hainbeste zuzendaritzan
Legazpin eramanak.
Azkenaldian Soraluzeko egoitzakoak
jaso dituzte zure gozamenak,
zoritxarrez bat joatean
izaten dira esker eta omenak.**

**Zure ingurukoak goxatzeko
bazendun hainbat kemen,
gauzak zuzen egiteko
beste horrenbeste sormen.
Besteak beste, ziur dezula
Arantzazuko Amatoxo aldamenen
agurrik ez, baizik,
gero arte Sor Karmen.**

M.K. Ortueta